



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/02/26) Hurrengo saioa: 2019/03/12	Inauteriak	Jakinarazpena zabaldu da	
	Emakumearen eguna	<p><u>Martxoak 7</u> (19:30tik 20:30era): <i>Gizonduz</i> (sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta gizonen parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko ekimena) ezagutaraztea emanez, solasaldia sortu: zer den, zergatik egiten den, zertan datzan, ekintzak, etorkizunerako erronkak,...</p> <p><u>Martxoak 8</u>: Herriko plazan 13:30etan elkartuko gara, norberak bere mantala ekarriko du eta errebindikazio-ospakizun argazkia egingo dugu. Ondoren, 14:00etan, Ostatuan bazkaria izango da. Arratsaldean Goierri beheko M8 plataformarekin elkarretartzera joateko proposamena egin da: kotxeetan lekua izango da eta soinean kolore morea duen ezaugarriren bat eramatea aholkatzen da.</p>	- M7koa gehiago zehaztu. - Jakinarazpena prestatu.
	Formazio saioak	Bi formazio saio aurreikusten dira: desfibriladorearen erabilera eta elikaduraren ingurukoa - desfibriladorearen erabilera: herrirako erosten direnean egingo da - elikadura: proposatzen den gaia honako hau: <i>Giltzurrunak eta hezurak indartu eta osteoporosiari buruzko gomendioak</i>	- Aurrekontuak eskatu - Datak eta lekua zehaztu
	ETBko albistegia	Otsailaren 24eko ETBko albistegian gaur egungo elizkizunen inguruko atalean herritarren testigantza jasotzen zenez, atal honen zabalkuntza egitea positiboki baloratu da	- Grabazioa lortu eta zabaldu
Diru-laguntzak: eskaerak eta justifikazioak	- Parte-hartze prozesua: Siadeco-k bidalitako proposamena aztertu ondoren, otsailaren 22an bidali zen. - Tokiko: 2018an eskatutako diru-laguntza honen justifikazioa burutu eta bidali da - HITZA: 2019ko diru-laguntza eskaera egin dute Udalera: biztanleko 3€ eskatzen dituzte	- Siadecorekin burutuko dugun prozesuaren faseak eta kronograma dagokionean herritarrei zabaldu.	



	J.M. Iparragirri aitortza Zozabarrotxikin	Iparragirre Itsasoko Zozabarrotxikin 1881eko apirilaren 6an hil zen eta aurreko auzolanean informazioa panela jarri zen bertan. Lekukotza osatze aldera, panelaren beste aurpegiak aukera ematen duenez, bere irudiz eta Gernikako Arbolaren poesiez da, eta egun horretan ipiniko da.	
	Dar-dar produkzioak	Dar-dar produkzioak (gizarte ekimenezko kooperatiba), Goierriko artistak identifikatu nahi ditu komunitatea sortzeko asmoarekin. Udaletxez udaletxe proiektua azaltzen ari dira eta Itsasora martxoaren 5ean hurbilduko dira.	- Proposamena baloratu.

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2019/02/27) Hurrengo saioa: 2018/03/13)	Zaborren kudeaketa Alegiako Birziklagunean	Itsasoko Udalekook eskatuta, Gabiriako alkate eta ordezkariekin batera Sasieta Mankomunitatearen gerentearekin bilera egin da Alegian zaborra bateratzearen kostuak, Gabiriak Itsasori ordaintzea dagozkionak zehazteko eta aurrera begira zer planteamendu den egokiena aztertzeko. Honen aurrean 3 proposamen jarri dira mahai gainean: <ol style="list-style-type: none">1. Guztiek orain arte bezala Birziklagunea erabili, Alegiako bileran partekatutako irizpideekin, baita konpostagunea ere. Honek 2500€ + konpostaguneagatik dagokiena suposatuko luke Gabiriak Itsasori ordaintzea.2. Birziklagunea eraikina handia denez, erdibanatu eta herri bakoitzak berea kudeatzea. Proposamen hau kontuak egiteko garaian argiagoa litzateke eta bakoitzak bere ardurapean izango luke biztanleen prestakuntza eta jarraipena. Hala ere, pisaketa bereizteak kostu gehigarria luke eta gainerakoan espazioaren alokairua eta eraikuntzaren mantendua elkarrekin egitea.3. Alegiako Gabiriako aldean Gabiriakoek Birziklagune berria sortzea, erabat independentea. Txabolaren kostua luke gehigarri bezala aurrekoen gain.	Gabiriakoekin zein den formularik posibleena eta egokiena lantzen jarraitu



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/03/05) Hurrengo saioa: 2019/03/26	Dar-dar produkzioak	Dar-dar produkzioak ARTERIA izeneko proiektua aurkeztu du: Goierriko eskualdeko sortzaileak bildu eta balorean jartzeko espazio bat sortu nahi du. Sortzaileak, hauen ingurunea eta gizartearen artean harremanak/ loturak saretzea bilatzen du eta bakoitzaren lanaren eta sormen prozesuen inguruko ezagutzak partekatuko dituzte. Itsasoko sortzaileak identifikatzea eta Udal, Entitate, Kultur Elkarteei, ... proiektu hau ezagutzera ematea ere izan da beraien helburua.	Herriko sortzaileei informazioa helarazi eta proiektuaren finantziazioan parte hartuko dugun erabaki.
	Emakumeen egunaren ingurukoak	<u>M7</u> : Udaletxeko balkoian jarriko den pankarta diseinatzen aritu gara. Pankarta bera erabiliko da M-8an (13:30etan) elkartzen den taldearekin argazkia ateratzeko. <u>M-8</u> : Egun honetarako antolatutako ekimenak erreparasatu dira eta ekarpen berriak ere jaso dira.	
	J.M. Iparragirri aitortza Zozabarrotxikin	2020an ospatuko denez J.M. Iparragirre jaio zeneko 200. urteurrena, bere omeneko aitortza zabala egitea adostu da: bere garaiko historiaren ezagutza abestien bitartez, bere musika eta olerkien ikuspegia, sentimenduen adierazpenak, ...	Datorren urtera begira, dokumentazioa eskuratzen hasi
	Uda parteko irteera	Lapurdiko Itsasu-koekin harremantzea ez da bideragarria ikusten, Etxauri herriarekin senidetu berri direlako batez ere, eta beste aukera batzuk jorratzen aritu gara: Lapurdiko Jatsu-Garazi eta Nafarroa Behereko Jatsu herriak, Gipuzkoako Itsasondo edo Bizkaiko Etxazo auzoa (Zeberio) izan daitezkeela aurtengo aukerak (etimologikoki Itsasoren jatorri bereko izenak).	Ideia hauek edo berriak garatzen joan